



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

PRENSA-OHARRA

## **Bizkaiko aurrekontuen proiektuak tramitetan jarraitzen dau, Bilduk eta PSEk aurkeztutako osoko zuzenketa-eskeak ukatu ostean**

Gernikan, 2013ko urtarrilaren 24an.

Gaur goizean Gernikan izandako osoko batzarrean, Bizkaiko Batzar Nagusiek ukatu egin ditue Bildu eta Euskal Sozialistak (PSE) taldeek José Luis Bilbaoren Foru Gobernuak prestatutako 2013rako aurrekontu-proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa-eskeak, Euzko Abertzaleak (PNV) eta Bizkaiko Popularrak (PP) taldeen kontrako botoakaz. PSEren zuzenketa-eskeak PP eta PNVren 30 botoakaz ukatu da, eta aldeko 19 izan dauz, sozialistenak eta Bilduren ordezkarienak. Bilduren zuzenketa-eskearen kasuan, taldeen jarrera berbera izan da. Kasu honetan, kontrako botoak 30 izan dira, eta zuzenketa-eskearen aldekoak 20. Lurraldeko kontuek parlamentuko tramiteagaz jarraituko dabe, izan be, 200 zuzenketa-eske partzialak batzordean eztabaidatuko dira.

Ogasun eta Finantzen foru diputadu José María Iruarrizagak emon deutso hasiera eztabaideari, Bizkaiak 2013an aurrekontuak izan behar dituala defendatuz. Lehenengo eta behin, adierazo dau kontu publikoen proiektua “gogorra eta doikuntzakoa” dala, baina “bideragarria eta zentratua”, eta, ondoren, bost ardatzetan oinarrituta dagoela esan dau: gizarte ekintza, enplegua, inbersino publikoa, zerbitzu publikoei eustea eta aurrekontu-egonkortasuna, zorpetzea ez handitzeko. Kalkuluen arabera 2013an Bizkaiko BPG ehuneko 1,1 hazi daitekeala adierazo ostean, esan dau Aldundiak “eragile” moduan erabiliko dituala Kontuak, beti be, “geure gaitasunetatik abiatuta aurre egiteko oraindik be eragiten deuskun krisi egoereari”.

2013rako, Aldundiaren guztizko aurrekontu bateratua (kudeaketa propioa gehi konpromiso instituzionalak) 6.831,3 milioi eurokoa da, hau da, 2012koa baino %5,8 gitxiago. Sailen kudeaketa propioko aurrekontua 1.435,7 milioi eurokoa da, eta “oinarritzko” hiru sail dagoz, Iruarrizagaren esanetan: Gizarte Ekintza Saila, Ekonomia Sustatzeko Saila, eta Herri Lan eta Garraio Saila. “Gastu sozialari lehentasuna emoteko eta konprometidutako inbersinoa mantetzeko balioko dau”, esan dau Iruarrizagak.

Bilduren bozeramaile Irune Sotok erantzun dau, Ahaldun Nagusiari zuzenduta, PNV eta PPren arteko akordioa “kromo-trukea” dala. Akordioaren edukien barri ez daukiela onartu ondoren, Sotok iragarri dau itun honek Euzko Legebiltzarrean aurrekontuak babesteko balioko dauela. “PNVk akordio honegaz erakutsi dauan nora ezak kezkatzen gaitu, bai eta horrek bizkaitarrengan izango dituan ondorioek be”. Aldundiak aurkeztutako kontuei jagokenez, koalizio abertzalearen bozeramaileak esan dau kontuek “ez dituela personak hartzen abiapuntutzat”, “ez dabela Bizkaiko egoera sozioekonomikoa hobetzen” eta “Rajoyren Gobernuaren murrizketei alfombra gorria ipinteko balio dabela”. Foru gobernuari eskaera egin deutso “gogoeta sakon eta serioa egin dagian bere politikaren ardatzen gainean”.

Ildo berean, PSEk Batzar Nagusietan daukan bozeramaileak, Iñaki Egañak, Araban eta Bizkaian aurrekontuan PPGaz negoziatzeak dakarren “kromo-aldaketea” salatu dau. “Teatro hustzat” hartu dau akordioa. “Eskuinen arteko besarkada da, ez eben akordiorik gura gugaz”, esan dau. Egañarentzat, Aldundiak aurkeztutako aurrekontu-proiektuak ez dau balio Bizkaiko arazoak konpontzeko, ongizatea



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

murrizten dabe-eta, eta “agortuta, ideiarik barik eta indarririk barik” dagoala esan dau. Hitzaldian, bete ez diran konpromisoak ekarri ditu gogora, besteak beste, Ermuko saihebidia, Metro Bilbaoren 3. linearen finantziazioa, garapenerako lankidetzarako partiden murrizketea eta udalen finantziazioa. Bozeramaile sozialistak esan dau “oraindik egin ez dan” erreforma fiskal batek “murrizketak arindu leikezala”.

Beste alde batetik, PPren bozeramaile Esther Martínezek esan dau Bildu eta PPren osoko zuzenketa-eskeen kontrako botoa “koherentea” dala. Jarrera hori justifikau dau; izan be, “ez dogu sinesten eskuinekoen eta ezkerrekoen diskurso horreetan, ondo edo txarto kudeatzean sinesten dogu, beharrezko gauzetan inbertitzean eta eraginkorrak izatean”. Martínezek, PNVren eraginez negoziatioetan zenbait astez blokeatuta egon dirala azpimarratu ostean, nabarmendu dau “zubi-lanak egiteko” eta “arduraz” lan egiteko momentua dala.

Euzko Abertzaleak taldearen aldetik, Jon Andoni Atutxa batzarkideak 2013rako aurrekontuak defendatu ditu, eta iragarri dau datozen egunetan PNVk lan-agiri bat bialduko deusela talde guztiei, PFEZ eta Soziedadeen Zerga erreformatzeko “oinarriak ipinteko”. Atutxak Aurrekontuen eztabaidan adierazo dau hori; bertan, garai barri baten sartu behar dala eta akordioetan aurrera egin behar dala defendatu dau. Era berean, esan dau bai bere alderdiak bai PPK ez “dabela amore emon azken asteotako zailtasunen aurrean”, eta adierazo dau lanean jarraitzen dabela “konpromisoa lortzeko”. Aurrekontuari jagokonez, esan dau “zorrotza, errealista eta neurrikoa” dala. “Ezin dogu gastau ez daukaguna”.

Osoko batzarrak 3 orduko iraupena izan dau, eta hemizikloaren argazki barria erakutsi dau, aurpegi barriakaz eta leku-aldaketakaz. Batzarrari hasiera emoteko, Oscar Aranak eta José Luis Sagredok euren karguak hartu ditue Euzko Abertzaleak taldearen batzarkide barri moduan, Bilboko eta Durango-Arratiako barrutietatik, hurrenez hurren. Juan María Aburto eta Idoia Mendiolaray ordezkatu ditue Gernikan; azken hori abenduan hil zan, eta Ganberako lehendakari Ana Madariagak modu berezian gogora ekarri dau batzarra amaitzean. Bestalde, Lorea Bilbaok, Euzko Abertzaleak taldearen bozeramaile barriak, Unai Rementeriaeren lekua hartu dau; azken hori Ahaldun Nagusiaren ondoan jarri da, Aldundiaren bozeramaile eta Lehendakartzako diputatu barri gisa.

Osoko zuzenketa-eskeen batzar honen ostean, aurrekontuen parlamentuko tramiteak jarraituko dau, zuzenketa-eske partzialak batzordean eztabaidatuz. Taldeek 200 zuzenketa-eske partzial aurkeztu ditue; horietako 1 PNVri jagoko, 88 Bilduri, 26 PSEri eta 85 PPri. Lurraldeko kontuak behin betiko onartzeko bidea azken batzar bategaz amaituko da; hain zuzen be, Ekonomia eta Ogasun Batzordetik pasau ostean geratzen diran zuzenketa-eske partzialak aztertuko dira azken batzar horretan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## NOTA DE PRENSA

### **El proyecto de presupuestos de Bizkaia continúa su tramitación tras el rechazo de las enmiendas a la totalidad presentadas por Bildu y PSE**

Gernika, a 24 de enero de 2013.

Las Juntas Generales de Bizkaia han rechazado en el pleno de esta mañana en Gernika las dos enmiendas a la totalidad presentadas por los grupos Bildu y Socialistas Vascos (PSE) al proyecto de presupuestos para 2013 elaborado por el Gobierno foral de José Luis Bilbao, con los votos en contra de los grupos Nacionalistas Vascos (PNV) y Popular Vizcaíno (PP). La enmienda del PSE ha sido rechazada por los 30 votos que sumaban PP y PNV, y ha contado con 19 apoyos, los de socialistas y también los representantes de Bildu. En el caso de la enmienda de Bildu, el posicionamiento de los grupos ha sido el mismo. En este caso, los votos en contra han sido 30 y a favor de la enmienda un total de 20. Las cuentas del territorio continuarán así con su trámite parlamentario con el debate de las 200 enmiendas parciales en comisión.

El diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha abierto el debate defendiendo la necesidad de que Bizkaia cuente con unos presupuestos en 2013. Ha señalado primeramente que el proyecto de cuentas públicas es "duro y de ajuste", pero "viable y centrado", para después recordar que pivota sobre cinco ejes: la acción social, el empleo, la inversión pública, el mantenimiento de los servicios públicos y la estabilidad presupuestaria para no aumentar el endeudamiento. Tras indicar que las estimaciones apuntan a que el PIB vizcaíno podría caer un 1,1 por ciento en 2013, ha señalado que la Diputación utilizará las Cuentas como "elemento tractor" para afrontar "desde nuestras capacidades una situación de crisis como la que todavía nos continúa impactando".

El presupuesto total consolidado de la Diputación (gestión propia más compromisos institucionales) para 2013 se sitúa en 6.831,3 millones de euros, un 5,8% por ciento menos con respecto al del 2012. El presupuesto de gestión propia departamental alcanza una cuantía de 1.435,7 millones de euros, con tres departamento "claves" según Iruarrizaga, que son Acción Social, Promoción Económica, y Obras Públicas y Transportes. Servirá para "priorizar el gasto social y mantener la inversión comprometida", ha dicho Iruarrizaga.

La portavoz de Bildu, Irune Soto, ha respondido dirigiéndose al Diputado General, que el acuerdo del PNV y el PP es un "trueque de cromos". Después de reconocer que desconocen los contenidos del acuerdo, Soto ha vaticinado que este pacto servirá para apoyar los presupuestos en el Parlamento Vasco. "Nos preocupa la deriva del PNV con este acuerdo y las consecuencias para los vizcaínos". En cuanto a las cuentas presentadas por la Diputación, la portavoz de la coalición abertzale ha dicho que éstas "no toman como punto de partida a las personas", "no mejoran la situación socioeconómica de Bizkaia" y "sirven para poner una alfombra roja a los recortes del Gobierno de Rajoy". Ha pedido al gobierno foral que "haga una reflexión profunda y seria sobre los ejes de su política".

En la misma línea, el portavoz del PSE en las Juntas, Iñaki Egaña, ha denunciado el "cambio de cromos" que supone negociar con el PP los presupuestos en Araba y en Bizkaia. Ha definido este acuerdo de "puro teatro". "Es el abrazo de las derechas, no buscaban el apoyo con nosotros", ha dicho. Para Egaña, el proyecto de presupuestos presentado por la Diputación, que ha definido como "agotada, sin ideas y sin fuerza", "no sirve para atajar los problemas de Bizkaia al recortar el



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

bienestar”. En su discurso, ha recordado los compromisos incumplidos como la variante de Ermua, la financiación de la Línea 3 de Metro Bilbao, la reducción de las partidas a la cooperación al desarrollo o la financiación de los ayuntamientos. El portavoz socialista ha dicho que una reforma fiscal, “que no se ha acometido, podría paliar los recortes”.

Por su parte, la portavoz del PP, Esther Martínez, ha dicho que el voto contrario a las enmiendas a la totalidad de Bildu y PP de su grupo es “coherente”. Ha justificado esta postura porque “no creemos en esos discursos de derechas e izquierdas, creemos en gestionar bien o mal, en invertir en lo necesario y en ser eficientes”. Martínez, después de subrayar que dejan atrás varias semanas de bloqueo en las negociaciones por parte del PNV, ha subrayado que es el momento de “tender puentes” y de trabajar con “diligencia”.

Por parte del grupo Nacionalistas Vascos, el apoderado Jon Andoni Atutxa ha defendido los presupuestos para 2013 y ha anunciado que a lo largo de los próximos días el PNV hará llegar a todos los grupos un documento de trabajo para “asentar las bases” de una reforma del IRPF y del Impuesto de Sociedades. Atutxa ha realizado este anuncio en el debate de Presupuestos, donde ha defendido la necesidad de entrar en un nuevo tiempo y poder avanzar en acuerdos. Ha indicado también que tanto su partido como el PP no se están dando “por vencidos ante las dificultades de las últimas semanas” y ha señalado que siguen trabajando para que el “compromiso pueda llegar a buen puerto”. Ha definido el presupuesto de “austero, realista y ajustado”. “No podemos gastar lo que no tenemos”.

La sesión plenaria, que ha durado 3 horas, ha reflejado una nueva foto del hemiciclo, con caras nuevas y cambios de lugar. El pleno se ha iniciado con la toma de posesión de Oscar Arana y José Luis Sagredo como nuevos apoderados del grupo Nacionalistas Vascos por las circunscripciones de Bilbao y Durango-Arratia, respectivamente. Han tomado asiento en Gernika en sustitución de Juan María Aburto y de Idoia Mendiolagaray, fallecida el pasado mes de diciembre, y a quien la presidenta de la Cámara, Ana Madariaga, ha recordado de forma especial al finalizar la sesión. Por su parte, Lorea Bilbao, la nueva portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, ha ocupado el sitio de su antecesor Unai Rementería, quien a su vez se ha sentado ya junto al Diputado General, como nuevo portavoz del ejecutivo y diputado de Presidencia.

Tras este pleno de enmiendas a la totalidad, seguirá el trámite parlamentario de los presupuestos con el debate de las enmiendas parciales en comisión. Los grupos han presentado un total de 200 enmiendas parciales, de las que 1 corresponde al PNV, 88 a Bildu, 26 al PSE y 85 al PP. El recorrido para aprobar definitivamente las cuentas del territorio finalizaría con un último pleno, que analice las enmiendas parciales que queden tras su paso por la Comisión de Economía y Hacienda.